



**I. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA**  
**Bizkaiko Foru Aldundia**

**Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila**

**Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuaren 11/2023 FORU AGINDUA, urtarrilaren 11koa. Honen bidez 2023rako Bizkaiko errepideetako soinu-kalitatea hobetzeko ekintza-planaren xede diren etxebizitzak ezartzen dira eta lan horiek garatzeko prozedura zehazten da. (Oker zuzenketa).**

Oker bat sumatu ondoren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2023ko urtarrilaren 18koa, 12 zenbakian, Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2009 Foru Dekretuko 17. artikuluan esaten duenez, jarraian berriz iragarki osoa argitaratzen da.

**Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuaren 11/2023 FORU AGINDUA, urtarrilaren 11koa. Honen bidez 2023rako Bizkaiko errepideetako soinu-kalitatea hobetzeko ekintza-planaren xede diren etxebizitzak ezartzen dira eta lan horiek garatzeko prozedura zehazten da.**

Aipatutako foru aginduaren bidez, honako hau xedatu da:

**1. artikulua. — 2023an zein etxebizitzatan jardungo den**

1. 2023rako, I. eranskinean jasotzen den lehentasun-indizearen arabera lehentasun-indize altuena duten 14 etxebizitza-eraikinak hautatu dira. 14 eraikin horiek honako hauek dira:

Eraikinak Edificios	Lehentasun-indizea Índice de prioridad
Basurto-Kastrexana kalea 55. ataria (Bilbo) Portal número 55 de la carretera Basurto-Kastrexana (Bilbao)	375
Iparragirre etorbidea 2b. ataria (Leioa) Portal número 2b de la avenida Iparragirre (Leioa)	375
Estartetxe kalea 19. ataria (Leioa) Portal número 19 de la calle Estartetxe (Leioa)	370
Estartetxe kalea 13. ataria (Leioa) Portal número 13 de la calle Estartetxe (Leioa)	355
Estartetxe kalea 9. ataria (Leioa) Portal número 9 de la calle Estartetxe (Leioa)	350
Etxatxu kalea 37. ataria (Barakaldo) Portal número 37 de la calle Etxatxu (Barakaldo)	340
Filomena Baldezate kalea 4. ataria (Bilbo) Portal número 4 de la calle Filomena Baldezate (Bilbao)	340
Estartetxe kalea 11. ataria (Leioa) Portal número 11 de la calle Estartetxe (Leioa)	340
Iparragirre Etorbidea 38. ataria (Leioa) Portal número 38 de la avenida Iparragirre (Leioa)	340
Estartetxe kalea 23. ataria (Leioa) Portal número 23 de la calle Estartetxe (Leioa)	335
Estacion de Basurto kalea 11. Ataria (Bilbo) Portal número 11 de la calle Estación de Basurto (Bilbao)	330
Estartetxe kalea 21. ataria (Leioa) Portal número 21 de la calle Estartetxe (Leioa)	325



Eraikinak Edificios	Lehentasun-indizea Índice de prioridad
Bizkaia kalea 62. ataria (Barakaldo) Portal número 62 de la calle Bizkaia (Barakaldo)	310
Tolosa kalea 4. ataria (Bilbo) Portal número 4 de la calle Tolosa (Bilbao)	300

2. Era berean, Bilboko Goya zeharbideko 2. zenbakiko 2A, 5D eta 6A etxebizitzak sartzan dira. Etxebizitza horietan 2021ean ere jardun zen, eta akats bat antzeman da bere garaian igorritako txostenetan. Etxebizitza horietan, etxebizitzako gela bateko leihoa ordeztuko da.

### **2. artikulua.— Isolamendu akustikoa hobetzeko lanak egingo diren gelak**

1. Isolamendu akustikoa hobetzeko obrak zaratarekiko sentikorrek diren esparruetan egingo dira, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak kontratatutako ENACek egiaztatutako enpresa batek egindako txostenak zehazten duenean.

2. Aipatutako ondorioetarako eta araudi akustikoan xedatutakoaren arabera, bizitegi-erabilerako eraikinetako esparru sentikorrek logelak eta egongelak izango dira. Beraz, ez dira sartzan sukaldeak, komunak, eskailerak eta, oro har, adierazitakoa ez den beste edozein erabilera.

3. Obra fatxaden isolamendu akustikoa hobetzean datza, leihoak isolatzeko ahalmen handiagoa duten beste leiho batzuekin ordeztuz, bai eta dagozkion lan osagarriak egitean ere.

### **3. artikulua.— Lanen norainokoa**

1. Lan horien bidez leihoak isolamendu akustiko handiagoko beste leiho batzuekin ordeztuko dira, hots-araudian ezarritako gela sentikorren barruan (logelak eta egongelak) kalitate akustikoko helburuak lortzeko.

2. Lan gehigarri edo osagarri hauek ere sartuko dira:

- Lehendik zeuden elementuak kendu eta birjartzea (burdin hesiak, toldoak, gortinak, pertsiana veneziarrak eta abar).
- Horma baldintza estetiko egokietan uzteko beharrezkoak diren igeltserotza-, pintura- eta dekorazio-lanak.
- Obretan sortzen diren hondakin guztiak kendu eta kudeatzea.
- Lan-eremua garbitzea.
- Beharrezko lizentziak eta baimenak.
- Hala badagokio, proiektu teknikoa eta obra-zuzendaritza.
- Obrek eragin ditzaketan kalteak lehengoratzea.

3. Ez da sartuko fatxadan edo gelaren barruan lehendik zeuden arazo edo akatsen konponketarik, ezta obren aurretik ez zeuden elementu edo instalazioen instalaziorik edo koloraziorik ere.

### **4. artikulua.— Prozedura**

#### **4.1. Eskabideak aurkeztea**

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Izapideen ardura duen organoak beharrezko kudeaketak egingo ditu, eragindako ja-been artean ahalik eta zabalkunderik handiena bermatzeko. Ondorio horietarako agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean, prozeduraren eta obren irismenaren informazio garrantzitsua jasotzen duen azalpen-oharra jarriko da eraginpeko atarietan, ondo ikusteko moduan.



Izapidetzeaz arduratzen den organoak egokitzat jotzen dituen beste bide osagarri batzuk ere erabili ahal izango ditu, eragindako jabeen artean ahalik eta zabalkunderik handiena lortzeko.

Eskabideak, ahal dela, III. eranskineko eredia erabiliz aurkeztuko dira. Eskabide-orrian nahitaez adierazi behar da telefono-zenbaki bat eta/edo helbide elektronikoko bat, eskatzailearekin harremanetan jarri ahal izateko.

Eskaera bakarra aurkeztuko da etxebizitza bakoitzeko. Etxebizitzaren jabeak edo legezko jabeak, legezko ordezkariak edo etxebizitzaren jabeak behar bezala baimendutako pertsona batek egingo dute eskaera.

Bakarrik onartuko dira foru agindu honen lehen puntuan aipatzen diren eraikinetako etxebizitzaren eskaerak.

Eskabideak honela aurkeztu ahal izango dira:

- a) Euskarri elektronikoa, helbide elektronikoko honetara bidalita: [aislamiento.acustico@bizkaia.eus](mailto:aislamiento.acustico@bizkaia.eus)
- b) Paperezko euskarrian; kasu honetan, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren erregistroan aurkeztu behar dira (Ibañez de Bilbao kalea 20, Bilbo).
- c) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako beste edozein bide erabiliz.

Paragrafo honetan aipatzen den eskaera aurkezten ez bada, isolamendu akustikoa hobetzeko jarduerak egiteko eskubidea galduko da.

#### 4.2. *Eskabideak zuzentzea*

Instrukzio-organok antzematen badu jasotako eskaera bideratzeko beharrezkoa den informazioa falta dela, eskatzaileari eskatuko dio hamar (10) egun balioduneko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzen dezala edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkez ditzala. Hala egiten ez badu, ondore horretarako emandako ebazpenaren bidez dagokion eskaeran atzera egin duela ulertuko da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakorekin bat.

#### 4.3. *Zaratarekiko sentikor diren erabilerak dituzten esparruen isolamendu akustikoari buruzko txostena*

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak ENACek egiaztatutako enpresa bat kontratatuko du, probak egiteko UNE-EN ISO 16283-3:2016 arauaren pean, edo, haren ordezkari den UNE-EN ISO 140-5:1999 entsegu-arauaren menpe, zehazteko zaratarekiko sentikor diren etxebizitzako gelek betetzen duten ala ez barruko espazioari aplikatu beharreko kalitate akustikoaren helburua, 213/2012 Dekretuaren eranskineko B taularekin bat dagokiena (Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko Dekretua, 2012ko urriaren 16koa).

Horretarako, aurretik, dirulaguntza eskatu duten etxebizitza guztiak bisitatuko ditu, zaratarekiko sentikor diren etxebizitza bakoitzeko esparruen ezaugarriei buruzko fitxa-txosten bat egiteko.

Ondorengo fase batean, lortutako informazioan oinarrituta, neurketa-plan bat prestatuko du, non adieraziko den zer etxebizitza eta eremutan egingo diren probak. Egin beharreko proba-kopuruaren eta horretarako behar den denboraren arabera, instrukzio-organok gehieneko epe bat ezarriko du hala probak egiteko nola emaitzak emateko.

Lan horiek egiteko, Laguntza Teknikoak eskatzailearekin hitzartuko du noiz eta zer ordutan egingo den etxebizitza bisitatzeko eta beharrezko entseguak egiteko.

Beste arrazoi batzuk direla medio, eskatzailea ez badago bizilekuan adostutako datan, prozedurarekin jarraitzeari uko egin diola ulertuko da.

Inguruabar horiek ez dezaten eragotzi eraikinean probak egitea, enpresak aukera izango du beste neurketa-plan bat proposatzeko.



#### 4.4. *Ebazpena*

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak ebatzi-ko ditu ukitutako eraikin guztietatik jasotako eskabideak, eraikin horietan batera eginez, inguruabar hauetakoren bat kontuan hartuta:

1. Entseguetako emaitzen arabera gela sentikorren barruan kalitate akustikoaren helburu-mailak betetzeko isolamendua nahikoa ez dela adierazten duten etxebizitzetan, aipatutako kalitate-helburuak lortzeko isolamendu-obrak egin behar diren etxebizitzako gelak adieraziko dira, txostenen ardura izango duen ENACek egiaztatutako erakundeak jaulkiko duen txostenak ezartzen duena betez.

Ikusten bada errepidera bideratutako fatxadan erabilera bereko esparruak antzeko arotzeria-tipologiekin bat datozela eta horietako batean saiakuntza-txostenak antzematen badu isolamendu-kalitatea ez dela betetzen, Instrukzio Organoak erabakiko du esparru horietan guztietan isolamendu akustikoa hobetuko duen ala ez.

Urteko aurrekontu-esleipena agortzeagatik eraikin bereko etxebizitza guztien obrak egitea ezinezkoa bada, lehentasuna emango zaie Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak egindako zarata-mapen arabera inpaktu akustiko handiena duten etxebizitzei. Egin ezin izan diren etxebizitzei dagozkien obrak hurrengo aurrekontu-ekitaldian egingo dira, beste eskaerarik aurkeztu beharrik gabe.

2. Txostenen emaitzak gela sentikorren barnealdeko kalitate akustikoaren helburu-mailak betetzeko dagoen isolamendu akustikoa nahikoa dela egiaztatzen duten etxebizitzetan, ukatu egingo da isolamendu akustikoa hobetzeko obrak egiteko eskaera.
3. Era berean, isolamendu akustikoa hobetzeko obrak egiteko eskaerak ukatuko dira honako kasu hauetan:
  - a) Eskaera emandako epeaz kanpo aurkezteagatik.
  - b) Dekretu honetan ezarritako dokumentazioa ez aurkezteagatik dagozkion errekerimenduak egin ondoren.
  - c) Etxebizitzara sartu ezin izateagatik zaratarekiko sentikor diren esparruen isolamendu akustikoa zehazteko, dekretu honen 10. artikuluan ezarritako prozedura amaitu ondoren.
  - d) Atzera egiteagatik edo uko egiteagatik.
  - e) Adierazi ez diren beste arrazoi batzuegatik, baldin eta aplikatu beharreko araudiarekin bat ukatzeko arrazoi izan badaiteke.
  - f) Eskabideak ebazten dituen aginduarekin batera, eskatzaile bakoitzari Bizkaiko Foru Aldundiak kontratatutako enpresak egindako txostena erantsiko zaio.

#### 4.5. *Errekurtsoak*

Foru-diputatuak emaniko ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko titularraren aurrean, hilabeteko (1) epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, Administrazioarekiko Auzietarako dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztaillaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako eran. Ezingo dira errekurtso biak aldi berean jarri.

#### **5. artikulua. — Obren kontratazioa**

Bizkaiko Foru Aldundiak kontratatutako enpresek egingo dituzte obrak.

Enpresa horiek udal-lizentzia eta beharrezko diren gainerako lizentziak eta baime-nak lortzeko beharrezko kudeaketak egiteaz ere arduratuko dira. Proiektu teknikoa idatzi



behar den kasuetan, enpresa arduratuko da proiektua egiteaz eta beharrezko baimenak lortzeaz.

Lanen kudeaketa arintze aldera, Aldundiak kontratatutako enpresek zuzenean hitzartuko dituzte jabeekin obrak egiteko egunak eta orduak.

#### **6. artikulua. — *Isolamendu akustikoaren kalitatea egiaztatzea***

Obrak amaitu ondoren, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak isolamendu akustikoa egiaztatzeko neurriak hartu ahal izango ditu ENACek UNE-EN ISO 16283-3: 2016 araurako edo, halakorik ezean, UNE-EN ISO 140-5: 1999 araurako egiaztatutako erakunde baten bidez, obrak egin eta hurrengo urtean. Egindako obren kalitateari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik zaratarekiko sentikorrek diren gelen barruan kalitate akustikoko helburuak lortzen ez badira, enpresa instalatzaileak, bere kontura, obretan beharrezko aldaketak egin beharko ditu aipatutako helburuak lortu arte.

#### **7. artikulua. — *Jabeen betebeharrak***

Lanak egiten diren etxebizitzetako jabeek betebehar hauek izango dituzte:

- a) Lanak egiten laguntzea, etxebizitzara sartzeko aukera emanez, bereziki enpre sarekin adostutako lan-egun eta -ordutegiei dagokienez.
- b) Egindako lanen isolamendu akustikoa egiaztatzeko jarduketak ahalbidetzea.

#### **8. artikulua. — *Datuen babesa***

Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako araudi honetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratze-ko, zuzentzeko, ezerezteko ("ahaztua izateko eskubidea"), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan baliogabetu dezake lehen adierazitako onarpena.

Halaber izango du eskubidea erreklamazioa aurkezteko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean.

#### AMAIERAKO XEDAPENA

#### **Amaierako Azken Xedapena. — *Indarrean jartzea***

Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 11n.

Azpiegituretarako eta Lurralde  
Garapenerako foru diputatua,  
IMANOL PRADALES GIL



I. ERANSKINA  
**LEHENTASUN-MAILA EZARTZEA**

XEDEA

Kontuan hartuta foru-errepideek eragiten duten inpaktu akustikoa murrizteko esku-  
ra dauden baliabide publikoak mugatuak direla, nahitaez ezarri behar izan da lehenta-  
sun-indize bat zehazteko zein hurrenkeratan ekingo dien sailak isolamendu akustikoa  
hobetzeko jarduketei.

Eraikin bakoitzean kalkulatu da lehentasun-indize hori, honako aldagai hauei begi-  
ratuta:

- Zenbat pertsona dauden gauez kalitate akustikoaren helburuak (KAH) gainditzen dituzten zarata-mailen eraginpean.
- Zein zarata-mailaren eraginpean (KAH) dauden herritar horiek.

METODOLOGIA

Eraikin bakoitzari aplika dakioken indizea ezartzeko, zarataren eraginpean dagoen herritar-kopurua hartzen da kontuan. Zaratari dagokionez, gauerako zarata-atalase gisa ezarritako kalitate akustikoaren helburua (55 dBA) gainditzen den ala ez begiratzen da, fatxaden immisio-mailaren arabera zenbatuz. Lehentasuna ematen zaie zarata-maila handiagoak jasaten dituztenei, mailaka multzokatuta eta maila bakoitzari beheko taulan aipatzen den ponderazio-koefizientea emanez:

Herritarrak multzokatzeko mailak, gauez jasaten den zarata-mailaren arabera (23:00etatik 7:00etara) Rangos en los que se agrupa la población en función de los niveles de ruido soportado en periodo nocturno (de 23:00 de la noche a 7:00 de la mañana)	Maila bakoitzari aplikatzen zaion ponderazio-koefizientea Coeficiente de ponderación aplicado a cada grupo
[55-60) dBA	5
[60-65) dBA	10
[65-70) dBA	15
≥70 dBA	25

Honako formula hau aplikatuz lortzen da eraikin bakoitzaren lehentasun-indizea:

$$\text{Índice de Prioridad} = \sum_{n=1}^4 \text{Núm. habitantes expuestos rango } n \times \text{Coeficiente rango } n$$

Hona erabilitako metodologiaren adibide bat:

Adibide Teorikoa / Ejemplo Teórico			
Eraikineko herritarrak multzokatzeko mailak Rangos en los que se agrupa la población del edificio	Ponderazio-koefizientea Coeficiente de ponderación	Maila bakoitzean zenbaturiko biztanleak Número de habitantes contabilizados en cada uno de los rangos	Puntuazioa guztira Puntuación total
[55-60) dBA	5	22	(22*5)+(18*10)+(12*15)+(6*25) = 620
[60-65) dBA	10	18	
[65-70) dBA	15	12	
≥70 dBA	25	6	

Metodologia horri jarraituz, lehentasun-indizearen arabera sailkatu dira bizitegi-erabilerara duten eraikin guztiak, soinu-presioaren maila jarraitu baliokidea (A haztatua) 65 dB baino handiagoa dutenak, gaurdian zehazturik,  $L_n > 65 \text{ dB(A)}$ .



## II. ERANSKINA

### ISOLAMENDU AKUSTIKOA ZEHAZTEA

Beharrezko isolamendu akustikoa zehazteko, enpresa instalatzaileak bi aukera hauetako bat aukeratu ahal izango du:

- a) Kalkulu teorikoaren bidez justifikatzea esparruaren fatxada guztiaren isolamendu-indize globala, bermatzeko eskatzen den isolamendua bera edo handiagoa dela, 3 dB(A)-ko segurtasun-tarte batekin.

Kalkulu akustiko hori egiteko, kontuan hartu beharko da fatxada eraikuntza-elementu mistoa dela, eta honako formula hau erabiliko da:

$$R_m = -10 \times \log \left( \frac{1}{S} \times \left( S_1 \times 10^{\frac{-R_1}{10}} + S_2 \times 10^{\frac{-R_2}{10}} + Sv \right) \right)^1$$

Honako hauek direlarik:

R<sub>m</sub> [dBA]: esparruaren fatxadaren (eraikuntza-elementu mistoaren) soinu-murrizketaren indize orokorra.

S [m<sup>2</sup>]: esparruaren fatxadaren azalera.

S<sub>1</sub> [m<sup>2</sup>]: fatxadako zati hutsaren azalera (leihoa edo antzeko bat).

R<sub>1</sub> [dBA]: leiho nahiz antzeko elementurako proposatzen den konponbidearen soinu-murrizketaren indize orokorra. Balio hori justifikatzeko, isolamendu-proba baten txostena aurkeztu behar da, laborategi batean egina.

S<sub>2</sub> [m<sup>2</sup>]: fatxadaren zati itsuaren azalera (trenkada-multzoa).

R<sub>2</sub> [dBA]: fatxadako trenkada-multzorako zenbatetsitako soinu-murrizketaren indize orokorra. Fatxada-motaren arabera, isolamendu-balio bat izendatuko zaio fatxadari. Balio hori zein den jakiteko, eraikuntza-elementuei buruzko datu akustikoen datu-baseak kontsulta daitezke<sup>2</sup>.

S<sub>v</sub> [m<sup>2</sup>]: inolako isolamendurik ez duten elementuen azalera (halakorik baldin bada), aireztapen-aterabideak edo bestelako elementuak direlako. Oro har, tratamendu akustikorik gabeko airegailuak direla jotzen da<sup>3</sup>.

- b) Leiho batzuk instalatzea beren isolamendu akustikoagatik berez justifikatzen dutenak fatxada guztirako eskatzen den isolamendu-maila (3 dB-ko segurtasun-tartea aplikatuta).

Leihoaren isolamendu akustikoak (R<sub>1</sub>) berez beteko balu fatxada guztirako eskatzen den isolamendu-maila (3 dB-ko segurtasun-tartea aplikatuta), eta ez balego beste elementu ahulik fatxadan (aireztapena), ez litzateke beharrezkoa izango goian aipaturiko kalkulu teorikoa egitea, bermaturik egongo bailitzateke fatxada guztiak berdind beteko lukeela.

<sup>1</sup> G.1 formula, G. eranskina. Eraikuntza-elementu mistoen isolamendu akustikoa kalkulatzeko, HZ oinarriko dokumentua. Zarataren kontrako babesa, Eraikuntzaren Kode Teknikoa / Fórmula G.1 del Anejo G. Cálculo del aislamiento acústico de elementos constructivos mixtos del Documento Básico HR Protección frente al ruido del Código Técnico de la Edificación.

<sup>2</sup> dBMat-Índices Globales' datu akustikoen basea: <http://www.acoubat-dbmat.com/dBMat.html> / Base de datos acústicos 'dBMat-Índices Globales': <http://www.acoubat-dbmat.com/dBMat.html>

<sup>3</sup> Proposatutako formularen, aplikatuko da Eraikuntzaren Kode Teknikoaren HZ oinarriko dokumentua. Zarataren aurkako babesa delakoaren 3.18 eta 3.19 formulatan airegailuei dagokiena / Aplicando en la fórmula propuesta lo referido a aireadores en las fórmulas 3.18 y 3.19 del Documento Básico HR Protección frente al ruido del Código Técnico de la Edificación.



## III ERANSKINA (ESKAERA) / ANEXO III (SOLICITUD)

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO ERREPIDEETAKO ZARATAK ERAGINDAKO  
ETXEBIZITZEN ERAIKINEN ISOLAMENDU AKUSTIKOA HOBETZEKO OBRAK  
OBRAS DE MEJORA DEL AISLAMIENTO ACÚSTICO DE EDIFICIOS DE VIVIENDAS  
AFECTADOS POR EL RUIDO DE LAS CARRETERAS FORALES DE BIZKAIA****Eskatzailearen datuak / Datos del solicitante**

Izen-deiturak / Nombre y apellidos	
NAN / DNI	Generoa / Género
Telefono zk. / N.º de teléfono	Posta elektronikoa / Correo electrónico

**Dirulaguntzaren xede den etxebizitza / Vivienda objeto de la subvención**

Kalea / Calle	
Atariaren zk. / Número del portal	Pisua/Letra / Piso/Letra
Udalerrria / Municipio	Posta-Kodea / Código Postal

**Jakinarazpenetarako helbidea (planaren xede den etxebizitzarena ez bada)****Domicilio a efecto de notificaciones (en caso de que sea distinto al de la vivienda objeto del plan)**

Kalea / Calle	
Atariaren zk. / Número del portal	Pisua/Letra / Piso/Letra
Udalerrria / Municipio	Posta-Kodea / Código Postal
Lurralde Historikoa/Probintzia / Territorio Histórico/Provincia	

**Eskaeraren xedea / Objeto de la solicitud**

Behean sinatzen duen pertsonak adierazten du bere etxebizitzan isolamendu akustikoa hobetzeko beharrari buruzko txostena egitea nahi duela, aplikatu beharreko araudi akustikoan ezarri dena betez, eta, behar izanez gero, leihoak ordeztzeko lanak egitea.

Ondorio horietarako, txostenak egiteko ardura duten teknikariei eta, hala badagokio, obrak egiteko ardura duten langileei ere sartzeko diela adierazten du.

La persona abajo firmante, manifiesta que desea que se realice en su vivienda informe sobre la necesidad de mejorar el aislamiento acústico de conformidad con la normativa acústica aplicable, y en caso necesario, que se realicen las correspondientes obras de sustitución de ventanas.

A los citados efectos, indica igualmente que permitirá el acceso al personal técnico encargado de realizar los informes, y en su caso, al personal encargado de realizar las obras.





**Datuen babesa / Protección de datos**

Bizkaiko Foru Aldundiak (Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak) datu pertsonalak babesteko aplikatu beharreko araudia betetzeko konpromisoa hartu du.

Dokumentu honetan jasotako datuen tratamenduaren arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila da, eta egindako eskaera kudeatzeko eta ebaluatzeko baino ez ditu erabiliko. Ez dizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharra izan ezik.

La Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial), se compromete al cumplimiento de la normativa aplicable de protección de datos de carácter personal.

El responsable del tratamiento de los datos contenidos en este documento es el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, que los utilizará exclusivamente para gestionar y evaluar la solicitud realizada. No los cederá a terceros, salvo obligación legal.

Data eta sinadura / Fecha y firma